

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIURIAN HARTZEKO DIRULAGUNTZAK EMATEA ARAUTUKO DITUZTEN OINARRI ERREGULATZAILEAK (2026).

ARRAZOIEN AZALPENA

Hernaniko Udalak 2014. urtean Aztikerrekin batera, Hernaniko gazteen egoera aztertzekeo prozesu parte-hartzailea jarri zuen martxan. *Gaztetu Hernani* prozesuaren helburua Hernaniko gazteriaren egoera gazteekin aztertzea zen, iritzi, joera eta behar nagusiak detektatzeko eta ahal den neurrian haiei erantzuteko. Prozesu honen barruan, etxebizitzaren alorrean, hainbat eskaera eta proposamen egin ziren. Haien artean, alokairurako erraztasunak ematea proposatu zen, gazteen testuinguru eta baliabide ekonomikoak kontuan hartuz. Oinarri hauek eskaera horri erantzuteko asmoa dute.

Prozesua amaitzearekin batera eta gazteen eta udalaren artean sorturiko dinamikari jarraipena emateko asmoz, "Gaztetu" gazte-kontseilua sortu zen. Jarraian agertuko diren hainbat baldintza eta eskakizun kontseilu honetan landu dira. Oinarri hauek bertan hitz egindakoari eta erabakitakoari jarraitzen saiatu dira.

Era berean, 2014an buruturiko 2015eko udal aurrekontuan parte-hartzekeo prozesuan, herritarrek alokairua sustatzeko dirulaguntzak ematea proposatu zuten: gazteei zuzendutakoak eta gainerako herritarrei zuzendutakoak. Halaber, Hernaniko Udalak egindako hausnarketaren ondorioz, etxebizitza alokatzekeo zailtasunak dituzten beste talde batzuk badaudela antzeman du, alokairuko dirulaguntza hauek banatzerakoan tratamendu berezia beharko luketenak, alegia.

Hori guztia horrela izanik, oinarri arautzaile hauen xedea da Hernanin etxebizitzak alokairuan hartzekeo dirulaguntzak ematea arautuko duten oinarriak adostea.

Azken helburua da:

- * Bereziki pertsona gazteei laguntzea euren emantzipazio bidean.
- * Modu orokorrean, Hernanin alokairuko etxebizitza eskuratzea erraztea.

Dirulaguntzaren deialdia aurreikusita dago 2026-2028 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 1. lerro estrategikoan: Gizarte ekintza.

Helburu estrategikoa:

- Hernaniarren bizi kalitate eta gizarte ongizate mailak igotzea. Arreta berezia jarrita zaurgarritasun egoera dauden kolektiboen bizi-baldintzak hobetzean (adineko emakumeak, migratzaileak, guraso bakarrekeo familiaburuak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, indarkeria matxista jasan duten emakumeak, iraupen luzeko langabetuak...).

- Genero berdintasuna, emakume eta gizonen artean parekidetasuna lortzera begira.

Ekimen zehatzak:

- Etxebizitzen alokairu soziala bultzatzea, herritarrei oro har, eta gazteei bereziki etxe bizitza alokatzekeo laguntzak emanez.

Eusko Jaurlaritzak onartuak dituen alokairu laguntzen deialdiek, hau da, Gaztelagun (Alokabide), DSBEn EPO laguntza (Lanbide), GLL edo Prestazio Subjektiboaren Eskabidea (Hernaniko Zerbitzu Sozialak), lehentasuna izango dute udal laguntza hauekiko.

Hori horrela, eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunez tramitatua izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura lortzen ez badu bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar horrek salbuespen bat izango du, hain zuzen ere udal laguntzen kudeatzaileak objektiboki zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkeela beteko, inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

I KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua.- Xedea.

1. Laguntza hauen xedea da eskaera egiten dutenen ohiko bizilekua den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea, dagoeneko etxebizitza errentan hartuta badaukate eta horretara bideratuak dauden gainerako laguntzetarako (Gaztelagun, Etxebizitzarako Prestazio Osagarria, Gizarte Larrialdietarako Laguntza...) eskubiderik ez badute.

2. Bi adin-multzo ezberdinduko dira:

“A-Modalitatea”: Gazteak (18-35 urte)

“B-Modalitatea”: Helduak (36 urte edo gehiago)

Oinarri hauetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza, eta onuradunak hamabi hilabeteetan ordaindu beharreko alokairua ordaintzeko erabiliko da, baldintza horiek epealdi horretan zehar mantentzen baldin badira.

2. Artikulua.- Organo eskuduna.

Oinarri hauek onartzeko eskumena duen organoa Tokiko Gobernu Batzarra da, alkateak 2023ko uztailaren 10ean emandako eskuordetze Dekretuaren arabera.

3. Artikulua.- Aurrekontuko diru hornidura.

Alokairurako dirulaguntzak finantzatzeko diru-baliabideak Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako ezarritako aurrekontu-kredituak erabiliko dira. Urteko deialdian zehaztuko dira partida(k) eta kopurua(k), betiere “A-Modalitatea”-Gazteak eta “B-Modalitatea”-Helduak berezitez. Bi modalitate hauetako partidak lotesleak izango dira, betiere modalitate bakoitzeko eskari guztiak aztertu eta esleitutakoan dirua soberan gelditzen bada.

4. Artikulua.- Interpretazioa eta araubidea.

Dirulaguntza emateko ardura duen organo berari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira sortzen den edozein zalantzari buruz erabakitzea.

Oinarri horietan ezarritakoaz gain, honako hauek arautuko dituzte dirulaguntzak:

- Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa.
- Dirulaguntzen Araudi Orokorra, 887/2006 Errege Dekretuak onartua, uztailaren 21ekoa.
- Hernaniko Udalaren udal dirulaguntzen araudia 2004koa (GAOn argitaratua 2005-02-18)
- Hernaniko Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa 2026-2028 (GAOn argitaratua 2025eko abenduaren 15ean).

5. Artikulua.- Publizitatea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdia eta oinarri arautzaileak eta haien babesean emandako diru-laguntzak udalaren web orrian www.hernani.eus/eu/dirulaguntzak. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAOn) eta, Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalen argitaratuko dira. (<http://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/ge/eu/index>)

II KAPITULUA

DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN JARDUERAK ETA ONURADUNAK

6. Artikulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak.

Diruz lagun daitezkeen gastuak: diruz lagunduko diren alokairu-gastuak deialdia zabaltzen den urte horretako urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango dira.

Araudi honetan jasotakoari jarraiki, alokairutik edo diruz lagun daitezkeen kontzeptutik kanpo geldituko dira hasierako fidantza, garaje eta komunitate eta administrazioko gastuak, bai eta kontribuzio edo zerga kontzeptupean sor daitezkeenak ere, dagokion kontratuan berariaz sartuta egonda ere.

Alokairuko hileko kuotatik 30 euroko balio finko bat kenduko da, aurreko paragrafoan deskribatutako garaje edo komunitate gastuengatik, alokairu kontratuan sartuta badaude eta ez bada horietako bakoitzaren hileko kostuaren berariazko justifikaziorik aurkezten.

7. Artikulua.- Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa eta diruz lagunduko diren gastuak.

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa errentaren arabera finkatuko da: hileko errenta konputagarriaren portzentaje bat izango da, eskaera bakoitzeko hileko hainbat euroko gehieneko muga izango du, eta gehienek 12 hilabeterako emango da, diru-sarreraren arabera.

2. Dirulaguntzen gehieneko kopuruak urteko deialdietan zehaztuko dira. (I. ERANSKINA)

3. Diruz lagundu daitezkeen zenbatekoa kuantifikatzeko, kontuan hartuko da oinarri hauetako 11. artikuluan bazterketei buruz ezarritakoa.

4. Alokairu partekatua denean, bizikidetzaren bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

5. Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoak ezingo du gainditu hileko errentaren %50a.

6. Alokairu kontratu bakoitzari ematen zaion laguntzaren zenbatekoak ezingo du, inola ere, Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikorako (EPE) ezarri den gehieneko muga gainditu.

8. Artikulua. Onuradunak.

1. Pertsona fisikoek eskuratu ahalko dute dirulaguntza, bakarrik nahiz bizikidetzaren batean bilduta bizi, baldin eta 9. artikuluan jasotako baldintzak betetzen badituzte.

2. Oinarri honen ondorioetarako, Bizikidetzaren unitateak osatzen dute etxebizitza edo bizileku berean elkarrekin bizi diren bi pertsonak edo gehiagok, baldin eta elkarren artean batuta badaude ezkontza bidez

edo ezkontzaren antzeko harreman iraunkor baten bidez, laugarren mailara arteko odol-ahaidetasunagatik edo bigarren mailara arteko ezkontza-ahaidetasunagatik, edo familia-harrerako harreman iraunkor batengatik edo adopzio aurreko edo tutoretzapeko harreman batengatik.

3. Bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztiek, seme-alaba adingabeek izan ezik, oinarri honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dituzte.

4. Udalak bizikidetzaren unitate kasu edo suposizio berriak definitu ahal izango ditu gizarte-bilakaeraren arabera, eta bereziki, familia-egitura ereduaren bilakaeraren arabera. Horren harira, baloratuko da eskaera egileen eta beraiekin bizi direnen arteko mendekotasun ekonomikoa, betiere, unitate hartzailearen eta hartu dituzten pertsonen artean diru bidezko traturik ez badago.

5. Alokairuko titular-kide diren pertsona fisikoek ere eskatu ahalko dute dirulaguntza (alokairua partekatu arren bizikidetzaren unitate bat osatzen ez dutenak).

Kasu hauetan titular-kide bakoitzak bere eskaera propioa egin beharko du (dokumentazioa ere bakoitzak atxikituta).

9. Artikulua.- Onuradunek bete beharreko baldintzak.

“A-Modalitatea”: deialdia zabaltzen den urtearen abenduaren 31n 18 eta 35 urte bitarte izatea.

“B-Modalitatea”: 36 urte edo gehiago izatea.

b) Errolda:

Dirulaguntzen onuradun diren bizikidetzaren unitateko pertsona guztiek edo alokairuko titular-kide direnek dirulaguntza jasoko duen etxebizitzaren erroldatuta egotea, dirulaguntza eskatzeko epea amaitu baino lehen.

Halaber, etxebizitzaren kontratuaren titular ez den adin nagusiko pertsonarik erroldatuta balego, kontratuaren titularrek pertsona horiek erroldatik baja emateko eskaera egitea, eskaera aurkeztearekin batera.

Erroldak eta kontratuak bat etortzea adin nagusiko pertsonen kasuan (ikasten ari diren adin-nagusiko seme-alabak izan ezik, beti ere, ikasturteko matrikula aurkezten badute).

Hernanin erroldatuta egotea gutxienez 6 hilabeteko antzinatasunarekin etenik gabe, dirulaguntza eskatzeko epea amaitzen den egunetik iraganera kontatzen hasita.

Alokatuta dagoen etxebizitzaren jabea/jabeek ezin izango da/dira etxebizitza horretan erroldatuta egon.

c) Hernaniko udalerrian kokatutako etxebizitza libre baten errentamendu-kontratuaren titular izatea, norberaren izena edo errentakide gisa, eta hori izatea bizikidetzaren unitate eskatzailearen ohiko eta etengabeko etxebizitza. Errentamendu-kontratu sinatua izango dute errentakide guztiek. Errenta-kontratuaren iraupenak, gutxienez, 12 hilabetekoa izan beharko du.

d) Inolako familia-loturarik ez edukitzea etxebizitzaren errentatzailearekin edo haren bizikidetzaren unitateko kideren batekin, odolkidetasun edo ahaidetasunezko bigarren mailaraino.

e) Errenta banku-transferentzia edo banku-agiri bidez ordaintzea.

f) Eskatzaileetako edo bizikidetzaren unitate osatzen duten kideetako batek ere ez du izango bere jabetzako etxebizitzarik, salbu eta herentzia edo dohaintza bidez eskuratutako jabetza osoko etxebizitza baten titular-kide denean, eta titular-kidetasun-portzentajea %50etik gorakoa ez denean, partaidetzen balio katastrala 90.231,61 euro baino gehiagokoa ez bada. (Zenbateko hori urtero eguneratuko da, katastroko balioen eguneratzearen arabera).

Hala ere, laguntza eskatu ahal izango du etxebizitza baten jabe %50ean baino gehiagoan denak baldin eta egiaztatzen badu ez daukala eskuragarri edo bere borondatearekin zerikusirik ez duen beste arrazoiren batengatik ezin dela bertan bizi.

g) Bizikidetzaren unitateko diru-sarreraren muga urteko deialdian zehaztutako kopurua baino txikiagoa izatea.

h) Bizikidetzaren unitatearen diru-sarreratzat joko diren kontzeptuak:

Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrera gisa zenbatuko dira kideetako edozeinek ondoko kontzeptu hauengatik lortutakoak:

1.- Lan-etekin garbiak, pentsio eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak barne, horien araubidea edozein dela ere; aldi baterako edo biziarteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.

Besteren kontura lanean diharduten langileen diru-sarreretatik datorren lan-etekin garbia honela kalkulatu da: eskatzailearen diru-sarrera gordinak ken Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioen zenbatekoa eta eskubide pasibo eta derrigorrezko mutualitateengatik ordaindutako kopuruak.

2.- Ekonomia jardueren etekinak

Estimazio Objektiboaren edo Zuzeneko Estimazioaren zerga-araubideari atxikitako jardun enpresarialak eta profesionalak baldin badira, dagokion Jardueraren Eranskinean esleitutako Errendimendu Garbia zenbatuko da.

3.- Kapital higiezinaren etekinak

Bizikidetzaren unitateak higiezinak baditu diru-sarreratzat hartuko da horien katastro-balioaren % 2, honako higiezin hauena izan ezik: ohiko etxebizitza eta norbere konturako baliabideak eragiten dituen ustiapenerako erabiltzen direnak. Nolanahi ere, landa-ondasunak zein hiri-ondasunak alokatzeagatik, eskualdatzeagatik edo lagatzeagatik lortutako etekin guztiak zenbatuko dira.

4.- Kapital higigarriaren etekinak.

5.- Ondare irabazi eta galerak.

6.- Ezkontideen arteko konpentsazio-pentsioak eta elikagaiengatik urtekoak.

i) Bizikidetzaren unitateko kideek udal ogasunean zorrik ez izatea.

j) Eskatzailea edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten (administrazio honek edo besteren batek emana) onuraduna izan badaiteke, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

k) Eskatzaileak edo bizikidetzaren unitatea osatzen duten kideetako batek antzeko helburua duen beste dirulaguntzaren baten (administrazio honek edo besteren batek emana) onuradun izateko eskubidea izanda ere, hura ukatu egin bazaio, betebeharrak ez betetzeagatik edota dokumentazio faltsua aurkezteagatik, ezin izango du dirulaguntza hau jaso.

Nolanahi ere, onuraduntzat jotzeko, egiaztatu beharko da ea Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan eta 887/2006 Errege Dekretuaren 18. artikulutik 29.era bitartekoetan, Administrazio Publikoek ematen dituzten dirulaguntzen arauetan ezarritako baldintzak betetzen ote dituzten.

Salbuespen egoerak

Dirulaguntza eskatzeko aukera izango dute eskatzaile hauek:

Adinari dagokion salbuespena:

18 urte beteta ez izan arren, beren kaxa bizi diren gazteak, bizikidetz-unitate berria sortu dutenean, hain zuzen ere. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.

Jabetzako etxebizitzarekin lotutako salbuespenak:

- * Bananduta edo dibortziatuta daudenean. Kasu horretan, epai judiziala eta hitzarmen arau-emailea aurkeztu beharko dira, etxebizitzaren erabilera beste ezkontideari eman zaiola egiaztatzeko.
- * Ohiko etxebizitzatik etxe-gabetu dituztenean. Kasu horretan, etxe-gabetze erabakia duen epaia aurkeztu beharko da.
- * Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeriako kasu bat denean. Udaleko Zerbitzu Sozialek egiaztatu beharko dute egoera hori.
- * Bere etxebizitza erabili ezin dutenean hondamendiren bat gertatu delako (uholdea, sutea, eta abar) edota suntsituta dagoela legez aitortu izan den kasuetan.

10. Artikulua. Etxebizitzek bete beharreko baldintzak.

1. Diruz lagunduko den etxebizitza Hernaniko udalerrian egotea.
2. Etxebizitza Udal erroldan eta katastroan altan emanda egotea.
3. Etxebizitzak hirigintza onarpena izatea.

11. Artikulua. Baztertzeak.

Ez dira onartuko kasu hauetan sartzen diren eskaerak:

- a) Alokaturako etxebizitza lehendik dagoen eraikin batean kokaturik ez badago, edo eraikin hori hirigintza-planeamenduan finkatuta ez badago edo haren aurreikuspenekin bat ez badator.
- b) Urteko deialdian zehaztuko den gehieneko alokairu-gastua gainditzen duten etxebizitzak.
- c) Urtebetekoa baino iraupen txikiagoa duten alokairu-kontratuak.
- d) Logelen alokairuak.
- e) Berralokairuak.

12. Artikulua. Beste dirulaguntzekiko bateraezintasunak.

Oinarri hauen arabera emandako dirulaguntzak helburu berarekin ematen diren beste dirulaguntzekin bateraezinak izango dira (EMANTZIPA dirulaguntzarekin izan ezik):

- 1) Gaztelagun Programaren alokairurako laguntzarekin.
- 2) Diru-Sarrera Bermatzeko Errenta (DSBE) eta administrazio publikoen gizarteratze-politiketarik eratorritako beste edozein errentarekin.
- 3) Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO) eta Etxebizitzarako Prestazio Ekonomikoa (EPE) dirulaguntzekin.

4) Gizarte-larrialdietarako laguntzekin (GLL), Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 44. artikulua 2. a) atalean aipatutako alokairu-gastuei loturik daudenekin.

Halaber, oinarri hauen arabera emandako dirulaguntza ezin izango da bateratu honako hauekin:

5) Errentamenduko babes publikoko etxebizitza bat izatearekin.

6) Errentamenduko etxebizitza pribatu bat izatearekin Merkatu Libreko Alokairurako Bitartekaritzako ASAP (Alokairu Segurua, Arrazoizko Prezioa) programaren bidez edo Etxebizitza Hutsen Bizigune Programaren bidez.

III KAPITULUA

PROZEDURA

13. Artikulua.- Dirulaguntzak emateko prozedura

Oinarri hauetan aurreikusten diren diru laguntzak norgehiagokako prozedura bidez tramitatuko dira.

Esleipen-prozesuan A-Modalitateko eta B-Modalitateko eskariak aztertu eta esleituko dira. Dagokion adin-multzorako aurrekontu-partida erabiliko da.

Aurrekontu ahalmenaren baitan, Hernaniko Udalak aurrekontua handitu dezake, baldintzak betetzen dituzten eskaera guztiak onartu ahal izateko. Horretarako, indarrean dagoen legeriaren arabera eta finantza-erabilgarritasuna kontuan hartuta, aurrekontu-aldaketa espedientea tramitatu beharko da. Aurrekontu-kreditua handitzearen ondorioz laguntzen hasierako zuzkidura handitzen bada ez da beharrezkoa izango deialdia berriro argitaratzea hura eraginkorra izateko.

14. Artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta modua.

Eskabideak Gipuzkoako **ALDIZKARI OFIZIALEAN** urtero argitaratuko den deialdian adierazitako epealdian aurkeztuko dira. Ez dira epez kanpo egiten diren eskabideak onartuko.

- 1 **Telematikoki:**
Hernaniko Udalaren www.hernani.eus atariaren bidez.
- 2 Aurrez aurre:
hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan 943 33 70 00
Udaletxeko beheko solairuan.

15. Artikulua.- Eskabideak: dokumentazioa.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa hau izango da:

1. Eskaera-orri ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Laguntza eskatzen duen pertsona bakoitzaren NA, pasaporte edo egoitza-txartela. Adin txikikoen kasuan, Familia Liburua, banakako erregistroa edo jaiotza-ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Dokumentazio hori beharrezkoa izango da, kasu guztietan, senidetasuna egiaztatzeko, baldin eta ondorengotza alegatu bada.
3. Etxebizitzaren alokairu-kontratua, indarrean dagoena eta diruz lagundu daitekeen epe barnekoa.

4. Eskatzailearen banku-kontuaren titulartasuna egiaztatzen duen agiria.
 5. Errentaren azkeneko ordainagiria (hilekoa), banku-transferentziaren edo banku-agiriaren bidez egina eskatzailearen izenean.
 6. Etxebizitza baten jabea bada aurkeztu beharreko agiriak:
 - Herentzia kasuan, herentziaren onarpen-agiria eta etxebizitza-partaidetzaren eskritura.
 - Dohaintza-kasuan, dohaintza-eskritura.
 - Bi kasuetan, partaidetza saldu izan balitz: eskualdatzearen eskritura.
 7. Bizikidetzaren unitateko kide guztien amaitutako azken ekitaldiko diru-sarrerara eta zergen gaineko honako dokumentu hauek:
 - 7.1. PFEZaren aitortpena egitera behartua ez dagoenak honako hauek eman beharko ditu:
 - * Besteren konturako langileek: kontzeptu guztiengatik jasotako diru-sarrerara garbi guztiei buruzko dokumentua, ekitaldi horri buruzkoa eta enpresak edo enplegu-emaileak emandakoa (10T).
 - * Pentsiodunek edo bekadunek, prestazioak edo subsidioak jasotzen dituztenak badira (Zerbitzu Sozialetako laguntzak barne), ekitaldi honetako laguntza horien ziurtagiria.
- Dagokion kasuan:
8. Gazteen kasuan: Eusko Jaurlaritzak emandako ebazpena, Gaztelagun alokairu-laguntza jasotzea dagokion edo ez adierazten duena (ebazpenik jaso ez duenak Jaurlaritzan egindako eskaera aurkeztu, eta ebazpena aurkeztu jasotzen duenean).
 9. Banandua, dibortziatua edo izatezko bikotea desegina egonez gero: seme-alaba adingaberik badago: hitzarmen arautzailea, eta seme-alaba adingabeen zaintza justifikatzen duen epai judiziala, hala badagokio, non zehazten den seme-alabengatik hitzartutako mantenu-pentsioa.
 10. Etxe-gabetzea denean, etxe-gabetzea erabaki duen epaia.
 11. Indarkeria matxistako edo familia barneko indarkeria kasu bat denean, oinarrizko gizarte-zerbitzuen txostena.
 12. Hondamendia denean, Hernaniko Udaleko zerbitzuek frogagiri gisa emandako txostena. Suntsitze-egoeran dauden etxebizitzaren kasuan, hori aitortzen duen legezko agiria.
 13. Dirulaguntza emateko betebeharrak kontuan izanik, baliagarria izan daitekeen beste edozein agiri.

Zinpeko aitortpenak

Zinpeko aitortpenak

1. Administrazioarekin Gizarte Segurantzako betebeharrak eta Zerga obligazioak egunean daudela adierazten duen zinpeko aitortpena.
2. Beste diru-sarrerara batzuk (zenbatekoa adieraziko da) izanez gero eta/edo beste erakundeetan dirulaguntza eskatuz gero, hori adierazten duen zinpeko aitortpena.

3. Orokorrean edonolako dirulaguntzak jasotzea eragozten duen egoeran ez dagoela adierazten duen zinpeko aitortpena. Halaber, oinarri hauen 9. eta 10. artikuluetan zehaztutako baldintzak betetzen dituela zinez aitortu beharko dute bai eskatzaileak bai eta bizikidetza-unitate bereko adin-nagusiko pertsona guztiek ere.

Baimenak

39/2015 Legearen 28. artikuluan eta 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6. 1. artikuluan ezarritakoari jarraiki, Hernaniko Udalak kontsultatuko du zuzenean, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez Eusko Jaurlaritzan, AGEEn, Foru Ogasunetan eta Gipuzkoako Foru Aldundian, eta interesdunak horren aurka egiten ez badu, laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen diren egiaztatze behar den informazioa eta, bereziki, bizikidetza-unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarreraren eta zergen gaineko honako dokumentuak. Ondorengo Kontsultak egingo dira:

- Eusko Jaurlaritza- Etxebizitzako Prestazio ekonomikoen kontsulta.
- Eusko Jaurlaritza- Hiri finen errentamenduen kontratuen eta fidantzen gordailuaren erregistroaren kontsulta.
- Eusko Jaurlaritza- Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren egungo egoeraren kontsulta (DBE).
- Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala- Gizarte-prestazio publikoen Historikoaren kontsulta
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa- Data Zehatzerako Enplegu Eskatzaile bezala Izen-Ematearen kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra- Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela egiaztatze kontsulta.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra- Azken bost urtetan jasotako Lan-Bizitzaren kontsulta.
- Gipuzkoako Foru Aldundia- Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
- Foru Ogasunak- PFEZ datuen kontsulta hedatua.
- Foru-ogasunak- Ondasun higiezinaren kontsulta hedatua.

Hernaniko Udalak zuzenean jasoko ditu eroldako eta udalaren zerga-betebeharreko datuak.

Udalak datuak kontsultatzeari uko eginez gero, eskatzaileek bizikidetza-unitateko kide guztien ekitaldiko diru-sarreraren, zergen, eta ondasun higiezinaren gaineko egiaztagiria aurkeztu beharko dituzte.

Nolanahi ere, aurkeztutako jarduerari dagokion dokumentazioaz gainera, Udalak egoki jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango die eskatzaileei, aurkeztutako jarduera baloratu ahal izateko.

16. Artikulua.- Akatsak zuzentzea.

Eskabideak edo harekin batera aurkeztutako dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar laneguneko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, antzemandako hutsak konpon ditzaten.

Emandako epea amaitu eta aurkitutako akatsak zuzendu ez badira, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, eta prozedura artxibatu egingo da, ebazpena eman ondoren, Administrazio Publikoen Prozedura

Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Dirulaguntzari dagokion eskaera orririk aurkezten ez bada, edo eskaerarekin batera inolako dokumenturik aurkezten ez bada, eta Udalarai baimena ematen ez bazaio erakunde eskudunei dirulaguntzen onuradun izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla egiaztatzeko behar diren datuak eskatzeko, eskaera zuzenean ezetsiko da.

17. Artikulua.- Bideratzea.

Espediente hauek tramitatzea eta dirulaguntzak ematea Udalaren Etxebizitza Arloaren ardurara izango da. Unitate horrek ofizios egingo ditu ebazpen-proposamena egiteko oinarritzat hartu behar diren datuak zehazteko, ezagutzeko eta egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen jarduketara guztiak.

18. Artikulua.- Ebazpena.

1. Diru laguntzak ebazteko organo eskuduna Tokiko Gobernu Batzarra izango da.
2. Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen proposamena, interesatuei jakinaraziko zaie, Hernaniko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki irizitako alegazioak egiteko hamar egun balioduneko epea emango zaie, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.
3. Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan jasoko da: eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda, proposatutako dirulaguntza eta zenbatekoa. Behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke. Alegaziorik egon ezean, edo ezeztatuak badira, ebazpen-proposamena behin betikoa bihurtuko da.
4. Ebazpenean berariaz jakinaraziko dira ezetsitako eskaerak, halakorik balego.
5. Ebazpena eman eta jakinarazteko gehienezko epea sei hilabetekoa izango da, eskabidea Udaleko erregistroan aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Aipatutako epean ebazpenik ez badago, aurkeztutako eskaera atzera bota dela adierazi nahiko du.
6. Ebazpenean dirulaguntzaren zenbatekoa eta ordainketa-era zehaztuko dira.

Eskaera aurkezteak ez du, berez, dirulaguntza jasotzeko eskubiderik ematen, eta dirulaguntza orok berezko duen izaera diskrezionalaren baitan egongo da dirulaguntza ematea.

Diru-laguntza ematea edo ez ematea erabakiko duen Tokiko Gobernu Batzarraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta haren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, ebazpena eman zuen organoari, hilabeteko epean, edo bestela, Donostiako Administrazio-azietarako Epaitegiaren aurrean zuzenean inpugnatu daiteke, jakinarazpenaren hurrengo egunetik hasi eta bi hilabeteko epean.

19. Artikulua. Laguntzak emateko irizpideak.

Dirulaguntzak emateko oinarritzko irizpideak oinarri hauen 9., 10. 11. eta 12. artikuluetan zehaztuak daude. Ezarritako baldintzak eta bete beharrak betetzen direla egiaztatu ondoren, dagozkion dirulaguntzak oinarri arautzaile hauetan ezarritako baldintzetan emango dira.

20. Artikulua.- Diru laguntza ordaintzea.

Dirulaguntza aldi bakar batean ordainduko da.

Ebazpenean zehaztuko da froga agiriak erregistratzeko epea.

Justifikazio-agiriak dagokion epean erregistratzen ez badira, dirulaguntza bertan behera geratuko da.

Agiriak aztertuta, dirulaguntzaren ordainketa aginduko da.

21. Artikulua.- Aurkeztu beharreko justifikazioa.

Dirulaguntza emandakoan, ordainketa bideratu ahal izateko onuradunak agiri hauek aurkeztuko ditu:

- a) Alokairu kontratuari dagozkion hilekoen ordainketen egiaztagiria (onuradunaren izenean agindutako banku-agiria edo banku transferentziaren agiria). Errentakideen kasuan, onartuko da hileko alokairu osoaren ordainagiri bakarra.
- b) Onuradunaren egoeran aldaketaren bat izan bada, aldaketa egiaztatzen duen agiria.

Eskatzaileak agiri justifikagarriak dagokion epean aurkezten ez baditu, dirulaguntza bertan behera geratuko da. Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 37. artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

22. Artikulua.- Onuradunaren betebeharrak.

Dirulaguntzetarako Lege Orokorren 14. artikuluan jasoak datozenaz gain, onuradunak honako hauek ere bete beharko ditu:

- Dirulaguntza oinarri hauetan jasotzen diren helburuak betetzeko erabiltzea.
- Eskatzen zaion informazio osagarri guztia Hernaniko Udalari aurkeztea.
- Dirulaguntza ematean kontuan izandako edozein gorabehera – hala objektiboa, nola subjektiboa – aldatzen bada, horren berri ematea.
- Oinarri hauetako 9. artikuluko b) atalean erroldatzeari buruz ezarritako baldintzak betetzeko egin beharreko gestioak egitea.

23. Artikulua. Onuradunaren baldintzak aldatzea.

Bere momentuan dirulaguntza ematea onartzeko baloratutako edozein baldintza aldatuz gero, etxebizitza, errenta, norberaren izenean ordaindutako zatia edo errentakideak aldatuz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa ere alda daiteke. Horrela bada, ebazpen berri bat egingo da.

24. Artikulua. Iraungitzea.

Honako hauek izango dira dirulaguntza iraungitzeko arrozoi:

- a) Dirulaguntza emateko arrozoi izan diren baldintzak ez betetzea.
- b) Pertsona onuradunak uko egitea.
- c) Pertsona onuraduna hiltzea.
- d) Emandako datuetan edo eskabideari erantsitako erantzukizunpeko adierazpenetan iruzur egitea.

IV. KAPITULUA

KONTROLA ETA PUBLIZITATEA

25. Artikulua.- Diru laguntzen publizitatea.

Diru laguntzen publizitateari dagokionean, bete egingo da azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 18. eta 20. artikuluek eta abenduaren 9ko 19/2014 Legearen 8. artikulua xedatutakoa.

Gainera, dirulaguntzaren zenbatekoa 3.000 €-koa edo handiagoa bada, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

Beti errespetatuko da datu pertsonalak babesteko legeak xedatutakoa, eta, horregatik, datu pertsonalak anonimizatuta argitaratuko dira.

26. Artikulua.- Ikuskaritza eta kontrola.

Onuradunak behartuta egongo dira diru laguntzen kudeaketa zuzena bermatzera bideratuko egiaztapen guztiak erraztera. Halaber, dirulaguntza ematen duen organoak egin beharreko egiaztapen-jardueren mende daude.

27. Artikulua. Ez-betetzea

Oinarri hauetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada dirulaguntza berraztertu egingo da eta, hala badagokio, baliogabetu edo emandako diru kopurua itzuli egin beharko da, dirulaguntzak emateari buruzko udal araudian aurreikusitako moduan.

Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizios hasiko da, eman zuen organoaren eskariz, eta hala badagokio, emandako dirulaguntza baliogabetzea, murriztea edo itzultzea erabaki ahal izango da, behar bezala arrazoituta. Prozeduraren izapideetan interesatuaren entzute eskubidea bermatuko da.

28. Artikulua. Oinarrien interpretazioa.

Dirulaguntza emateko ardura duen organoari dagokio oinarri hauen interpretazioaren harira zalantzarik sortzen bada haiei buruz erabakitzea.

29. Artikulua.- Adostasun-adierazpena

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

30. Artikulua.- Datu pertsonalen babesa

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere adostasunarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorraren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

31. Artikulua.- Hizkuntza-oharra

Oinarri hauen euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzeman ez gero, euskarazko testuak izango du balioa

I. ERANSKINA

Hernaniko herrian etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntza deialdiak.

Urtero dagokion organo eskudunak onartuko ditu deialdiak. Hor zehaztuko dira urte bakoitzean bete beharrekoak (partida eta aurrekontuko diru-hornidura; aurkeztu beharreko agiriak; epeak, kopuruak...) eta aurkeztu beharreko eskaera orria ere onartuko da.

HERNANIKO HERRIAN ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN HARTZEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIA 2026 URTERAKO

1. Xedea eta dirulaguntzaren epearen iraupena.

Laguntza hauen xedea da eskaera egiten duten gazteen eta gainerako herritarren ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairuaren zati bat ordaintzen laguntzea. Herritarrei etxebizitzak alokairuan hartzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileen 1. artikuluan zehaztutakoa errespetatuko da.

Urteko deialdi honi dagokionez, gazteak kontsideratuko dira 1991. eta 2008. urte bitartean jaiotako herritarrak (biak barne).

Deialdi honetan eta berau arautzen dituen oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzen arabera tramitatu eta emango da dirulaguntza.

Eusko Jaurlaritzak onartuak dituen alokairu laguntzen deialdiek, hau da, Gaztelagun (Alokabide), DSB Eren EPO laguntza (Lanbide), GLL edo Prestazio Subjektiboaren Eskabidea (Hernaniko Zerbitzu Sozialak), lehentasuna izango dute udal laguntza hauekiko. Hori horrela, eskatzaileak derrigorrez eta lehentasunez tramitatu izan beharko du Jaurlaritzaren laguntza, eta hura lortzen ez badu bakarrik izango du udal laguntza hauek jasotzeko eskubidea. Eusko Jaurlaritzaren laguntza derrigorrez tramitatu behar horrek salbuespen bat izango du, hain zuzen ere udal laguntzen kudeatzaileak objektiboki zehazten baldin badu eskatzaileak ez lituzkela beteko, inolaz ere, Eusko Jaurlaritzaren laguntzen oinarriak.

Urteko deialdi honi dagokionez, diruz lagunduko diren alokairu-gastuak 2026ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartekoak izango dira.

2. Partida eta aurrekontuko diru-hornidura eta dirulaguntzak banatzeko irizpideak.

Deialdi honetan emango diren dirulaguntzen zenbatekoa guztira 210.000 eurokoa izango da, eta hori 2026. urterako Hernaniko Udalaren Aurrekontu Orokorren partida hauetatik egingo da: 1 1130.480.02.231.04 2026 (Gazteena) eta 1 1130.480.01.231.04 2026 (Helduena). Partida osoen kopurua honela banatuko da:

- 105.000 euro: 18-35 urte bitarteko gazteek egindako eskarientzako ("A-Modalitatea")
- 105.000 euro: 36 urtetik gorako herritarrek egindako eskarientzako ("B-Modalitatea")

Dirulaguntzak emateko oinarrizko irizpideak oinarri arautzaileetan xedatutakoak izango dira. Irizpide nagusia hau izango da:

Modalitate bakoitzean ("A-Modalitatea"-Gazteak eta "B-Modalitatea"-Helduak) dagokion adin-multzorako aurrekontu-kredituaren kopurua erabiliko da. Onuradunei urteko deialdiaren tauletan azaltzen diren gehienezko dirulaguntzen kopuruak esleituko zaizkie.

3. Baldintzak

Dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretako 9., 10., 11. eta 12. artikuluetan zehaztutako baldintzak bete beharko dira.

4. Kopuruak.

Diru-sarrerei dagozkien gehienezko mugak hauek izango dira:

- a) 28.000,00 euro garbi urtean, bizikidetzaren unitatea pertsona bakar batez osatuta baldin badago.
- b) 39.000,00 euro garbi urtean, bizikidetzaren unitatea bi pertsona edo gehiagok osatuta baldin badago.

Alokairu-gastuei dagokionez gehienezko kopuru hau ezin izango da gainditu: hilean 800 €-koa (etxebizitza osoaren hileko errenta).

Alokairu partekatua denean, onuradun bakoitzari emateko laguntza kalkulatzeko, etxebizitza osoaren hileko errenta zatituko da kontratuko titularren kopuruaren artean.

Dirulaguntzen zenbatekoak hauek izango dira:

- Pertsona bakarraren kasuan

Diru sarrera garbiak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko dirulaguntza (hilabetero)
26.000,01 eta 28.000,00 € bitartean	% 20	135,00 €
24.000,01 eta 26.000,00 € bitartean	% 30	190,00 €
22.000,01 eta 24.000,00 € bitartean	% 40	245,00 €
22.000,00 € arte	% 50	300,00 €

- Bizikidetzaren unitatea pertsona batek baino gehiagok osatzen badute:

Diru sarrera garbiak eurotan	Alokairu-gastuaren %	Gehienezko dirulaguntza (hilabetero)
33.000,01 eta 39.000,00 € bitartean	% 20	135,00 €
30.000,01 eta 33.000,00 € bitartean	% 30	190,00 €
26.000,01 eta 30.000,00 € bitartean	% 40	245,00 €
26.000,00 € arte	% 50	300,00 €

5. Aurkeztu beharreko agiriak eta eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

Dokumentazioa: Eskaerak dirulaguntza honetarako prestatutako eskaera-orri normalizatuan aurkeztuko dira, behar bezala beteta. Eskaera-orri normalizatuak www.hernani.eus web-orrian eta *hhz-Herritarren Harrera Zerbitzuan* egongo dira eskuragarri.

Eskaerarekin batera, dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretako 15. artikuluan zehaztutako dokumentazioa aurkeztuko da.

Hernaniko Udalak kontsultatuko du zuzenean, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez Eusko Jaurlaritzan, AGEEn, Foru Ogasunetan eta Gipuzkoako Foru Aldundian, interesdunak horren aurka egiten ez badu, laguntza eskuratzeko baldintzak betetzen diren egiaztatze behar den informazioa (eskatzailearena eta bizikidetzaren unitateko kide guztiena). Interesdunek egiaztatze horren aurka egin dezakete, kasu horretan, dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute.

Eskariak aurkezteko epea eta lekua:

Eskabideak aurkezteko epea hilabete batekoa izango da, hain zuzen ere, 2026ko irailaren 1etik 30era.

Deialdi hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko da.

Eskariak aurkeztuko dira udal erregistro bidez:

- 1 Telematikoa
Telematikoki www.hernani.eus atariaren bidez.
- 2 Aurrez aurre
hhz-Herritarren Harrera Zerbitzua 943 33 70 00
Udaletxeko beheko solairuan.

6. Ebazpena eta jakinarazpena.

Ebazpena egiteko organo eskuduna Hernaniko udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da.

Dirulaguntzen behin-behineko ebazpen proposamena, interesatuei jakinaraziko zaie, Hernaniko Udaleko iragarki taularen edota web orriaren bidez, eta egoki iritzitako alegazioak egiteko hamar egun balioduneko epea emango zaie, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hala badagokio, aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, behin betiko ebazpenaren proposamena egingo da. Bertan jasoko da: eskaerak aurkeztutako pertsonen zerrenda, proposatutako dirulaguntza eta zenbatekoa. Behin-behineko zerrenden ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazioak onartuz gero, behin betiko zerrendetako diru kopuruetan aldaketak egon daitezke. Alegaziorik egon ezean, edo ezeztatuak badira, ebazpen-proposamena behin betikoa bihurtuko da.

Prozeduraren ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, espedienteak tramitatzeko, ebazteko eta behar diren jakinarazpenak egiteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez. Epe hori eskaera aurkezten denetik aurrera hasiko da zenbatzen.

7. Justifikaziorako dokumentazioa: egiaztatze agiriak eta aurkezteko epea.

Aurkeztu beharreko egiaztatze-agiriak oinarri orokorren 21. artikuluan zerrendatutako agiriak izango dira.

Udal erregistro bidez aurkeztuko dira.

Egiaztatze-agiriak aurkezteko epea deialdiaren ebazpenean zehaztuko da.

Justifikazio-agiriak dagokion epean erregistratzen ez badira, dirulaguntza bertan behera geratuko da.

Edozein kasutan ere, 12 hilabete horietan zehar hasieran aurkeztutako dokumentazioarekiko aldaketarik baldin badago, horren berri segituan eman beharko dio onuradunak Udalari, eta dagozkion dokumentu berriak ere erregistroan aurkeztu. Jakinarazpen hori egingo ez balitz, egoera berria suertatu den datatik aurrera jasotako dirulaguntza kopuru osoa itzuli beharko dio onuradunak Udalari.

8. Bateriaezintasunak.

Deialdi honetan araututako laguntzak bateraezinak dira oinarri orokorren 12. artikuluan zerrendatutakoekin.

Eskatzaileek deialdi honek diruz lagundu nahi duen xederako GLL, Gaztelagun eta antzekoak jasotzeko baldintzak betez gero, aipaturiko laguntza horietara bideratuko dira. Eta laguntza hauek, beraz, beste laguntzek babesten ez dituzten eta deialdiak jasotako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileetara daude bideratuta.

9. Hizkuntza-oharra.

Oinarri hauen euskarazko eta espainierazko testuen artean kontraesanik edo inkoherentziarik antzeman ez gero, euskarazko testuak izango du balioa.